

Elgoibar - 1263. zenb.
XXX urtea - 2022-11-11



Kultura ezberdinen arteko hurbiltzea

TOKIKOM

BARREN



Bihar Bilboko kaleetan ikusiko dugu elkar!



Autobusa Txankakuako geltokitik irtengo da, 16:00etan.

Abante!

ehbildu
ELGOIBAR

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako enantzikuzunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaletako arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Asier Guisasola Iñiguez

Portu, Ubide eta bideetako ingeniaria

Erdipurdiko zuhaitzak



*“Hobe da ondo garatutako
pare bat zuhaitz espezie,
dozena bat makil
hosto batzuekin baino”*

Ikasleok gogoan dauzkagu izandako irakasle txarrenak, baina baita onenak ere, zorionez, azken hauek erakutsitakoek bizitzan asko laguntzen baitgute. Nire irakasle izandako Enrique Castillok Estatistika Sari Nazionala jaso berri du. Portu, ubide eta bideetako ingeniaria eta matematikan lizentziaduna izatez, pertsonen bizitzak hobetzen dituen zientzian lan egiten gozatzen duela dio. Aditua da estatistikan eta bere jakintza aplikatu du, tartean, ingeniaritza zibileko obren segurtasunean eta muturreko balioen estatistikan.

Munduko Erakunde Meteorologikoak esan du azken 8 urteak izan direla historian erregistratutako beroenak. Muturreko tenperaturek pertsonen bizikaltatean eragiten dute zuzen-zuzen. Resilientzia gutxiko porlanezko hiriguneetan bero-uharte efektua sortzen da. Asfaltz beteta eta gerizperik gabeko kaleak bestelako guneak baino askoz gehiago berotzen dira, eta egun beroetan basamortu bihurtu; berdegunez eta zuhaitzez diseinatutakoak, aldiz, fresko samar egoten dira egun sargorietan ere.

Asko daki horretaz lanean ezagutu berri dutan Samuelek. Orain arte hirigintzan zuhaitzen kalitateari baino kantitateari erreparatu zaiola esaten zidan. Herrietako kaleetan, epe laburreko onura politikoki zuzenak lortzeko, zuhaitzak hala moduz edozein lekutan eta edozein espezieetakoak landatu direla dio. Tamalez ez dira askotan kontuan izaten zuhaitzaren lur azpiko sustratuaren kalitatea, zuhaitzetik erakinetara dagoen distantzia-tartea, tokiaren egokitasuna aukeratutako zuhaitz espeziearentzat... eta horrek epe ertain-luzera arazoak dakartza zuhaitzaren garapenean. Ezinbestekoa da zuhaitza bera ondo garatzeko behar diren zer guztiak egoki zaintzea. Bere hitzetan, zuhaitz bat epe luzerako inbertsioa da; eta kalean hobe da ondo garatutako pare bat espezie eukitzea dozena bat makil hosto batzuekin baino.

Zuhaitzok irakasleak modukoak dira, epe luzera eragina dute gugan, eta aukeran, hobe gutxi eta bikainak, asko eta erdipurdikoak baino.

*BARRE*Nek ez du bere gain hartzen *Iritzia* eta *Eskutitzak* ataletan adierazitakoen erantzukizunik. *Eskutitzak* ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, *NANa* eta telefona jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Burka ikusezina

Gona motza edo luzea
lepoa tamainan erakutsi
eta hara arau berria,
Santa Klara eta Jausoroko
"Taliban" talde batek ezarria:
Sexu harremanak isilpean.
Kupel txarretik ardo onik ez.

Itziar Irureta Unanue

Eskerrik asko

Egin diogu tokia Gaba Beltzari Elgoibarren, eta guk aurreikusi baino handiagoa izan da. Hori hala izateko ezinbestekoa izan da, pertsona eta eragile askoren inplikazioa eta horiei eskerrak eman nahi dizkiegu, ekintza sortzen eta osatzen lagundu digutelako.

Eskerrik asko Egur Arte Tailerreko artistei eta langileei, Elgoibarko Herri Eskolari, antortxak eraman zituzten umeei, Elgoibar Ikastolari, erakuslehoak apaindu zituzten komertzio eta ostalariei, Ignazio Bereziartua musika eta dantza eskolari eta dantzara etorri ziren ikasleei, gure atzetik argiak pizten etorri zen brigadako langileari, Elgoibarko Udalari, Uluka Batukari, egunean bertan boluntario lanetan ibili zirenei, Udal ludotekari, Haritz Euskal Dantza Taldeari, Gazte Asanbladari, eta, nola ez, ekintzetan parte hartu zuten guztiei.

Atxutxiamaika



Aurora Casado Corcuera

2022ko azaroaren 2an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Joxepa Aguirre San Martin

2022ko azaroaren 5ean hil zen, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



II. URTEURRENA

Petra Merino Pozo

2020ko azaroaren 10ean hil zen, 86 urte zituela.
Maitasunez erein zenituen haziak loratzen jarraituko dute.
Beti egongo zara gure bihotzean.

Zure familia



7 egun falta dira!



7 egun euskara ulertzen duenari euskaraz egiteko; ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteko.



7 egun euskaraz dakienari euskaraz egin diezagula eskatzeko.



7 egun entitateetan euskaraz lasai jarduteko guneak aktibatzeko.

Elgoibarren 103 entitatek eman dute izena eta 366 arigune sortu dira. Eta, momentuz, 978 elgoibartarrek esan dugu ariketa egin nahi dugula.

Izena eman eta txapak jasotzeko:
Aita Agirre Kulturgunea 3, 3 ezkerre
euskaraldia@elgoibar.eus / 943 741 626



HASIERA EKITALDIA Elgoibarren
Azaroak 19, larunbata
Kalegoen plazan, 13:30ean





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Jendea azkarregi ibiltzen da patinete elektrikoetan:

"Azkenaldian asko ugaritu dira patinete elektrikoak herriko kaleetan, eta jende asko azkarregi ibiltzen da. Errepidean egin dezatela nahi dutena, baina herri barruan polikiago ibili beharko lirateke.

Kaleetan adineko jende asko ibiltzen da, eta egoera arriskutsuak sortzen dira patineteek darabilten abiaduraren ondorioz. Araudiren bat edo abiadura mugaren bat behar dela iruditzen zait, bestela egunen batean ezbeharren bat gertatuko da".



Udalak ezin dezake ezer egin Kalegoen plazako eraikinaren konpontze lanak bizkortzeko?:

"2019ko ekainean erori zen Kalegoen plazako eraikina, eta eraikinari eusteko egitura bat jarri zioten. Hiru urte eta erdi pasatu dira ordutik, eta egoerak berdin jarraitzen du. Udalak ezin al du ezer egin inplikatura dauden alderdiak ados jarri eta obrak abiarazteko? Eraikin hori herriko ingurune adierazgarrienean dago eta ematen duen irudia penagarria da benetan". Udalera jo dugu, eta esan dutenez, Udalak 2019an hainbat lan burutu zituen herritarren segurtasuna bermatze aldera, eraikina erori zenean. "Estabilizatzaileak arrazoi horregatik mantentzen dira gaur egun arte. Prozedimendua gaur egun epaitegian dago, eta bertan ebatziko da ebatzi beharrekoa", esan dute.



Zorionak eta eskerrik asko Hezkuntza Mahaiari Gaba Beltza antolatzeagatik:

"Mila esker Euskal Herriko txoko askotan 1950eko hamarkada aldera arte oso zabalduta egon zen usadioaren esentzia berreskuratzeagatik. Aurtengo ekintza benetan ederra izan da".



Blues Hotsak		AZAROA 17 OSTEGLINA 19:00	AZAROA 18 OSTIRALA 20:00	AZAROA 19 LARUNBATA 20:00	AZAROA 20 IGANDEA 19:00
www.blueshotsak.com 2022 Azaroa 17-20 SORALUZE HERRIKO ANTZOKIA ALBARRAPEN KONZERTUA URRIA 30 KANDEA 19:00		THE BLACK WOODSTOCK FILMA SUMMER OF SOUL	ITZIAR YAGUE & PAUL SAN MARTIN BESSIE SMITH IN MEMORIAM	NIKO ETXART & HAPA-HAPA	CARLTON JUMER SMITH & THE HARTGARS ORKESTRA MUSIKA ESKOLA KURRUKA

Anbulatorioko larrialdi zerbitzua berreskuratzeko borrokan jarraitzeko deia egin du 24/7 taldeak

Mobilizatorako eguna izendatu zuen 24/7 plataformak urriaren 29a, eta herritarrei dei egin zieten anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zabaltzearen aldeko mobilizazioetan parte hartzera. Mobilizazio eguna "arrakastatsua" izan zela nabarmendu dute plataformatik, eta dei egin diete herritarrei euren eskaera "masiboki" babesten jarraitzera. "Ehunka herritarrek hartu zuten parte mobilizazioetan, eta, beste behin ere, agerian geratu zen murrizketen salaketa eta anbulatorioak etenik gabeko ordutegia berreskuratzeko eskaera elgoibartarren gehiengoak babesten duela", adierazi dute.

Plataformakoek aipamen berezia egin diete urriaren 29an Elgoibarko kaleetara irtetea erabaki zuten pertsona guztiei, eta bereziki antolatutako ekitaldietan parte hartu zutenei: "Mila esker Haritz Euskal Dantzari Taldeari, Alfon eta Gabi musikariei, Angel Ugartebururi, Raqueli, Aneri, merkatariei, ostalariei, eragile sozialetako ordezkarietara eta mobilizazioa arrakastatsua izan zedin euren aletxoak jarri zuten pertsona anonimo guztiei".

Elgoibarri eta elgoibartarrei kendu zaien eskubide bat berreskuratzeko borrokan jarraituko dutela adierazi dute, harik eta "elgoibartarren gehiengo handi batek egiten duen erreklamazio horri Osakidetza eta haren arduradun politikoei behingoz erantzun bat eman arte. Entzun dezatela guztion ahotsa eta erantzun bat eman".



Gainera, zehaztu dute, borroka hau ez dela gutxi batzuen, "guztiona" baizik; hala, Elgoibarko herritarrek, "orain arte egin duten moduan", mobilizatzen jarraitzera animatu dituzte.

Aldi baterako lau lanpostu publiko betetzeko deialdia egin du Elgoibarko Udalak

Peoi lanak egiteko lau lanpostu betetzeko deialdia egin du Elgoibarko Udalak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean. Burutuko dituzten lanen artean daude kaleetako, auzoetako, industrialdeetako eta landa-eremuetako espaloiak eta bideak mantentzeko eta hobetzeko lanak egitea, lorezaintzako, igeltserotzako, pinturako edota arotzeriako oinarriko lanen bidez. Era berean, hiri-altzariak, azpiegiturak eta abar hobetzeko anomaliari, kalteei edo iradokizunei buruzko datuak batuko dituzte. Kontratuen iraupenari

dagokionez, lanaldi osokoak eta 4 hilabete eta erdikoak izango dira. Lanpostu horietan izena eman nahi dutenek Lanbideren Elgoibarko egoitzan edo www.lanbide.eus webgunean egin dezakete. Postura hautatzeko ezinbestekoa da igeltseritza, elektrizitate, pintura edo arotzeria-lanetan Lanbideko ziurtagiriaren bidez egiaztatutako lan-esperientzia izatea, Langabezian egotea eta Lanbiden enpleguskatzaile gisa izena emanda egotea, eta Elgoibar, Mendaro, Soraluze, Deba edo Mutrikun erroldatuta egotea.

Nerea Isasi izango da Aldundiko Berdintasun zuzendari berria



Nerea Isasi Bedayo aukeratu dute Gipuzkoako Foru Aldundian Berdintasun zuzendari kargurako, Miren Elgarresta ordezkatzeko. Eibartarra da sortzez Nerea Isasi, baina egun Mendaron bizi da, eta EAJko zinegotzi da Mendaroko Udalean. Ikasketaz, Magisteritzan diplomatua da, irakasle ikasketetako diploma du, eta Psikopedagogiako lizentzia. Hamabost urtez Hezkuntza publikoan lan egin du, eta azkeneko zazpiak Lanbide Heziketan eman ditu. Lanbide Heziketan, berdintasunari buruzko goi maila ezartzen lagundu zuen, eta irakasle ere izan da. Eider Mendoza Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaileak eman zuen albistearen berri eta esan zuen Isasiren izendapena «oso garrantzitsua» dela. «Europar desberdintasun maila txikiak dituzten lurraldeen artean kokatu nahi dugu Gipuzkoa, eta, bide horretan, desberdintasunari aurre egin nahi diogu bere alderdi guztietatik: sozialetik, ekonomikotik, linguistikotik, eta baita genero ikuspegitik ere», zehaztu zuen.

Hauteskudeei begira Mendarorako herri programa osatzeko lan saio parte-hartzailea egin du EH Bilduk



Udaberrian, 2023ko udal hauteskudeak prestatzeko lantalde bat osatu zuen Mendaroko EH Bilduk, herriaren egoeraren "ahalik eta diagnostiko zorrotzeta" egiteko asmoz, eta lantalde horrek egindako lana Mendaroko EH Bilduren oinarriaren ekarpenekin osatzeko, urriaren amaieran lan saio parte-hartzaile bat antolatu zuten udaletxeko pleno aretoan. Herri nortasuna, gizarte politikak eta herri jasagarria atalburuetan banatuta, hamar gai izan zituzten eztabaidagai. Bederatzi emakumek eta hamabost gizonek parte hartu zuten eta 50 ekarpen baino gehiago jaso zituzten. Parte-hartzaileei asetasun inkesta pasatu zieten gero, eta emaitzak ikusita, saioa "arrakastatsua" izan dela esan dute EHBildutik. Saio horren ondotik, hurrengo fasea hasiko dutela jakinarazi dute orain, eta herri-programa osatu arteko fase berri horretan ere herritarren eta herriko taldeen iritzia kontuan hartzeko ahalegin berezia egingo dutela nabarmendu.

Kalamua eta Urazandi kalea lotzeko obrak 2023ko lehen sei hilabeteetan hasita aurreratu du Udalak

Kalamua eta Urazandi kalea lotzeko obrak 215.563,83 euroko aurrekontua izango du (BEZ gabe) eta interesa duten enpresek Udalaren kontratatzailearen profilaren bidez aurkeztu ahal izango dute beren proposamena azaroaren 30era arte (12:00). Obrak 2023ko lehen sei hilabeteetan hasita aurreratu dute. Udal arduradunek komenigarritzat jo dute bi kaleak batzea, inguruko trafikoa arintzeko. Kaleko zirkulazioa

antolatzeko dauden aukerak aztertu dituzte, eta eraginkorragoa izango dela iritzita, noranzko bakarreko eta beheranzko noranzkoko galtzada duen diseinua egitea erabaki dute. Bi aldeetan bi metroko zabalerako espaloiak izango dituen bide bat proiektatu du Injelan SL ingeniarietza-enpresak, gehienez %6ko maldakoa, irisgarritasun baldintzak betetzeko. Era berean, euri-uren sarea handituko dute, bai eta LED argiztapen-sarea jarri ere.

Bazkide kanpaina hasiko du gaur Elgoibarko Baso Biziak taldeak

Bertako basoa sustatzeko asmoz sortu zuten Baso Biziak elkarte, eta orain bazkide-kanpaina jarriko dute abian, jendea taldera batzeko. Gaur hasiko dute kanpaina, eta elkarteko kideak kalera irtengo dira: Kalebarren plazan egongo dira 18:00etatik 20:00etara, eta, bihar, 11:30etik 13:30era. Datozen hiru asteburuetan irtengo dira kalera bazkide bila, aipaturiko leku eta orduetan. Hala ere, elkartearen sare sozialen bidez ere egin daiteke bazkide. Gogora ekarri dute elkarte honen helburua bertako basoa sustatzea dela, landare eta animaliei babeslekua eskaini eta errekak osasuntsu mantenduz, guztion bizi-kalitatea hobetu eta inguru bizigarriago bat eraikitzeko. Bazkideen dirua hainbat ekintzetarako erabiliko dute: lurrak erosteko, zuhaitzak landatzeko, itteerak antolatzeko, hitzaldiak antolatzeko...

Kanpainari lotuta, bi hitzaldi ere antolatu dituzte: Lehenengoa *Pinutik eukaliptora? Euskal Herriko basogintza auzitan* izango da. Arturo Elosegi ekologia katedradunak emango du hitzaldia, azaroaren 15ean, Kultur Etxeko hitzaldi



gelan (19:00). Astebete ondoren izango da bigarrena: *Eta orain zer? Bestelako basogintza eredu baterantz*: Basogintza, ingurumena eta ikerketa bateratu nahi dituen Errez kooperatibako kideek emango dute azaroaren 22an, Kultur Etxeko hitzaldi gelan (19:00).



Trantsizio energetikoari buruzko hitzaldia eguaztenean

Elgoibarko EAJ-k antolatuta, energiaren egungo egoerari buruzko hitzaldia emango du Iñigo Ansola Kareaga Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak. Trantsizio energetikoa eta energia berriztagarriak izango ditu hizpide. Eguaztenean izango da, azaroaren 16an, Aita Agirre kulturguneko areto nagusian.

Zuberoako ikastolen aldeko saskiak erosteko aukera dago Elgoibarko Izarran

Urtero moduan, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak Zuberoko ikastolei laguntzeko aukera eskaini nahi die elgoibartarrei. Hiru saski egongo dira aukeran:

- Pettarra (51 euro): Ahate gibel berrosatua, eztia, ardi gazta kilo, bixkotx gatzatuak eta pastak.
- Arbaila (57 euro): Eztia, bixkotx artizanalak,

kilo erdiko bi gazta zati, bixkotx gazituak, erreximenta, tisanak eta pastak.

- Basabürüa (68 euro): Xerri pate, bixkotx artizanalak, ardi gazta kilo, xahalki axoa, lukainka idorra, eta pastak.

Eskariak egiteko: 943 741 626 tefonora deitu edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzi, azaroaren 25erako.

Euskaratik urrun eta euskaratik gertu bizi diren familiak elkartzeko sortu zuten 'Auzoko Familiak' (Lehen, 'Hurbiltzen') egitasmoa Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak orain urtebete, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Antolatzaileek uste dute Euskal Herrian elkarbizitza hizkuntzatik ere eraiki daitekeela, kultura ezberdinetako herritarrak harremanetan jarrita, eta horretan ari dira. Hilean bi arratsaldetan batzen dira 'Auzoko Familiak' egitasmora batutako familiak, nahi dutenerako, eta, jakina, ez daude lotuta irteera denetara joatera. Izen emateko Elgoibarko Izarrara, ikastolara edo Herri Eskolara deitu behar da, eta doan da izen-ematea.



ELKARBIZITZARAKO ZUBIA, EUSKARATIK

✍️ Ainara Argoitia / 🗣️ Asier Orbea - Auzoko Familiak

Euskaratik, elkarbizitzarako zubi bat eraikitzen dator *Auzoko Familiak* egitasmoa. Euskal Herrian ehun hizkuntzatik gorako aberastasuna dugula jasota dauka Euskaltzaleen Topaguneak -Elgoibarren bertan ere hogeita bost bat hizkuntza hitz egiten dira-, eta egitasmo honen bidez, hizkuntza horiek guztiak zaindu eta kohesio-hizkuntza euskara izatea nahi dute Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak. Batetik, justizia sozialekoa delako, gauza jakina baita eskubide linguistikoak errespetatzea herritarron berdintasun sozialerako oinarritzakoa dela, eta aldi berean, migratzaileari geuk geuretzat nahiko genukeen harrera errespetuzkoa egitea guztion erantzukizuna dela; eta bestetik, bada beharra ere, euskaldunok behar ditugulako hiztun horiek guztiak gertu eta ulerkor, Euskal Herrian euskara erabiltzea ohikoa eta eroso izango bada. "Euskararen biziberritzea etorriko da jatorri eta hizkuntza askotariko herritarron parte-hartzetik

eta elkarlanetik", dio horren harira Topaguneak ere.

Sistema eraikita dugun moduagatik eta ditugun aurreiritzi askotarikoengatik, baina, bi mundu bereizi gara askotan euskaratik gertu bizi garenak (Auzokideak) eta urrun bizi direnak (Auzotarrak), eta modu naturalean nekez ematen diren topaketak modu artifizialean sortu beharra dago gaur gaurkoz. Horixe da egitasmo honetan egiten dutena, dinamizatzaile baten laguntzarekin. "Hilean bi arratsaldez elkartzen gara aisialdiaz gozatzeko; elkarrekin egoteko eta elkar ezagutzeko. Geuk proposatu ditugu hasierako irteerak, baina horiek bidea eman dute modu natural batean plan berriak sortzeko. Hori da bilatzen duguna; hori da nahiko genukeena: jendeak aukera ematea honi, elkarrengana gerturatuta denok irabazten dugulako", zehaztu du Gorane Ayesta Atxutxiamaikako hezitzaile eta *Auzoko Familiak* egitasmoko dinamizatzaileak.

Helburua interesgarria ezezik aberasgarria dela inork gutxi jarriko du zalantzan, baina hala ere, ez du hasiera erraza izan egitasmo honek, eta ez da izan preseski antolatzaileak saiatu ez direlako. Zailtasun horiek ere badira zerbaiten adierazle.

Maialen Gurrutxaga Euskara zinegotziak egin du atzera begirakoa. *Auzoko Familiak* egitasmoa martxan jartzeko herriko ikastetxeen konplizitatea bilatu zuten. Antolatu zituzten bi aurkezpen saio, bat euskaraz eta bestea, gaztelaniaz. "Gaztelerazkoak izan zuen harrera handiagoa, bereziki kanpotik etorritako familiaena. Horrek begi-bistan utzi zuen honelako egitasmoen beharra. Kanpotik datozenak gure gizartera egin nahi ditugu, egunerokoan eroso senti daitezen egin lan. Baina horrek, ez bairik gabe, bi aldeen konplizitatea eskatzen du. Elgoibartarrok aktibo izan behar dugu". Gurrutxagak ezinbestekoa ikusten du inklusio hori, erakundeetatik haratago, "keinurik txikienetara" trasladatzea, "elgoibartarrek zein elgoibartar berriek jarrera aktibo hori izatea eta elkarlanerako prestutasuna erakustea". Horretarako balio du egitasmo honek bere ustez. "Kanal bat da, baina gu gara protagonista, eta protagonismo hori nahi izatea eta sustatzea da gakoa".

Nolanahi ere, badago joera bat migrantea joera txar askoren errudun jotzekoa, Amelia Barquin Kulturarteko hezkuntzan adituak Elgoibarko Hezkuntza Mahaiak egindako saio baten harira agerkari honi ohartarazi bezala. "Beste hizkuntza askorekin bizi da euskara Euskal Herrian eta egoera gutxiagotuan dagoenez, badago joera bat pentsatzekoa kanpotik iristen direnek arriskuan jar dezaketela euskara eta euskal kultura, baina datorren hori errespetuz jasotzen badugu, errazago ulertuko du hark guk transmisioarekin dugun kezka, eta gu geu ere konturatuko gara hain ezberdin ikusten ditugunak ez direla hain ezberdin", zehaztu du Ayestak. Egitasmoa batu den ama marokoar bati entzundakoa ekarri du akordura. Arabiera hizkuntza hegemonikoa da euren herrialdean, baina hemen gutxiengoan daude, eta ama horrek kontatua da

'Auzoko Familiak'-en parte hartzea doan da, eta norberak erabakitzen du zer eman nahi duen, baina, izatez, hilean bi arratsaldetan elkartzen dira familiak aisialdiaz elkarrekin gozatzeko

euren seme-alabek badutela etxeko hizkuntza baztertu eta gaztelaniaz egiteko joera. "Kezka bera partekatzen badugu, nola ez dugu ba enpatizatuko?", gehitu du horren harira Ayestak.

FAMILIENTZAKO DEIA

Euskaratik urrun dauden hiru familia eta euskaratik gertu dauden lau familia jardun dira elkartzen azkeneko urtebetean, baina erakarri nahiko lituzkete familia gehiago ere, eta hasita daude antolatzaileak zabalkundea egiten, ikastetxeen bidez. Helburua berbera izango da: harremanak sortzea eta sendotzea batzuen eta besteen artean, bizikidetzaz espazioak sortzea, eta aniztasuna aberastasuna dela ulertzea eta zabaltzea. Horretarako, jarraituko dute planak egiten. Batzuetan, sotoan, erreferentziazko espazioan, elkartuko dira, jolasteko, hitz egiteko edo familiek duten beste edozein beharri erantzuteko. Beste batzuetan, irteerak egingo dituzte herriko baliabideak ezagutzeko (Makina Erremintaren museoa eta Lizagasar bisitatzen izan dira aurtan) edota herriko beste eragile



batzuekin ekintzak lotzen saiatuko dira, eta era berean, ahaleginduko dira baita ere kanpotik etorritakoek eurek euren kultura ezagutarazteko ekintzak antolatzen ere.

GOZAMENETIK EGINDAKO GERTURATZEA

Auzoko familiak egitasmoan parte hartzeak zer eman dien galderari gozamina, lagun berriak eta aberastasuna hitzekin erantzun diote parte hartu dutenek. Aipatu dute beste kultura batzuetako pertsonekin harreman pertsonala eta profesionala eraikitzeke aukera eman diela egitasmoa batu izanak, bai eta zenbait aurreiritzi deseraikitzeke bidea ere. Sei lagun batu zaizkigu elkarrizketara, lau ama eta 9 eta 5 urteko bi neska-mutil: Assia Elfathi Mousaif eta Ishak Hammdoudi-Najari. Ametako bi, Nerea Gil eta Nerea Gorostiza, elgoibartarrak dira sortzez, euskaldunak, eta aipatu dute bizikidetza inklusibo baterako bidea egiteke eman zutela izena proiektuan. "Elgoibarren bizi garen kultura ezberdinetako pertsonak elkar ezagutzeko aukera ematen duela uste dugu. Beldur eta aurreiritziak gainditu eta bizikidetza inklusibo bati hasiera emateke tresna da proiektua. Gure seme-alabentzako herri hobea eraiki nahi dugu, inor bazterrean utzi gabe, eta proiektu honek horretarako atea zabaltzen duela uste dugu", nabarmendu dute. Maryam Mousaif eta Hanane Najarizerdual marokoarrak dira izatez, baina dozenatik gora urte daramatzate Elgoibarren. Gaur solasaldira ekarri dituzten hurrez Euskal Herrian erditu ziren, eta elgoibartarrak dira, baina ez dira hala irakurriak sentitzen beti. "Elkarren

"Norbanakoaren hautua da izena ematea, bakoitzaren balore, printzipio eta bizitzeko moduan oinarrituta hartutako hautu pertsonala, baina esan dezaket gu geu oso pozik gaudela eta jarraituko dugula parte hartzen"

ondoan bizi gara, baina bereizita. Horma bat balego bezala da batzuen eta besteen artean, eta epaitzen ditugu auzoak, ezagutu aurretik. Eten nahi genuen hori. Iritsi ginenean ez genituen hemengo hizkuntzak ezagutzen eta hori beti da muga handi bat. Hasi ginen ikasten hala ere, eta eskolan beste batzuekin harremantzen. Eskola da lehen hartuemanerako lekua. Hala ere, denok dauzkagu aurreiritziak ezezaguna zaigun horren inguruan eta horiek gainditzeko bideak asmatu behar ditugu. Aspalditik genuen proiektu honen beharra, nire ustez", esan du Maryam Mousaifek. Zabaltzen-Sarturen bidez izan zuten estreinakoz proiektuaren berri, nahiz gero ikastetxean -Herri Eskolan- ere jaso zuten izen-emate orria, eta dio beste jende batekin harremantzea gustuko duelako eman zuela izena.

Herriko kultur eta hizkuntza aniztasunari balioa ematea, elkar ezagutza sustatzea eta alde biko harrera egitea bilatzen ditu *Auzoko Familiak* egitasmoak. Harrera nola egin horretan ikusten dituzte mugak, eta hein berean, aurrera egiteko modua. Gilek eta Gorostizak uste dute "minorizatuak izatearen kondiziotik" egiten diegula harrera hori sarri migratzaileei, "beldurretik". "Gureari balioa ematea nahi badugu, baina, haiena ezagutu eta haienari balioa ematea ezinbestekoa da". Zalantzarik ez dute egiten zaien harreraren arabera izango dela besteek gurekiko eta euskararekiko izango duten jarrera. Iruditzen zaie askotan guk geuk egiten ez duguna eskatzen diegula auzoei. "Ez dira





hurbiltzen' esaten dugu, baina ez dugu ahaztu behar eurek datozela egoera zailago batetik eta geuri dagokigula besoak zabaltea, gu askoz egoera erosoagoan gaudelako. Jakina, denok ez gara berdinak eta harrera egiten duenaren eta datorrenaren izaerak ere zeresan handia du guzti honetan, harrerak norabide bikoia izan behar duelako beti", gaineratu du horren harira Gorostizak.

BALORAZIO POSITIBOA

Urtebeteko esperientziaz galdetuta, oso balorazio positiboa egiten dute. Whatsapp talde bat dute eta han proposatzen dituzte planak. "Plan batek beti ematen du beste baterako bidea". Hiztegi moduko bat ari dira osatzen oinarrizko esaldi batzuk taldekideek hitz egiten dituzten hizkuntza ezberdinetan jarrita, eta irteera bakoitzeko esaldi bat ikasten saiatzeko konpromisoa ere hartua dute. Azkenekoz elkartu zirenean, herriko elkarte batean egin zuten otorduan, Gau Beltzaz eta kultura ezberdinetan heriotza ulertzeko duten moduez jardun ziren hizketan, "gidoirik gabe", bai eta gizonez eta haiek betetzen dituzten ardurez ere, eta jabetu ziren uste baino antzekotasun gehiago daudela bi kulturen artean. "Hona iristen zarenean pentsatzen duzu hemengo emakumeak paradisuan bizi direla, baina hitz egitean konturatzen zara gauza askotan berdin gaudela", zehaztu du horren harira Maryamek. Mezquita ezagutzera joateko proposamena ere egin zuen taldekide batek azkeneko elkartzean, eta amets ere egin zuten noizbait elkarrekin Alhambra (Granada, Andaluzia, Espainia) ezagutzera joatearekin. "Finantzazioa behar dugu", bota du

Gilek bat-batean broma-haizean, eta algaraka jarri ditu denak. Solasaldian egindako irteeren erreposoa egin dute eta barre ere bai bizitakoak gogoratzean. Igarri-igarrikoa da haien arteko konplizitatea. "Elkar ezagutzeak ematen du hori", dio Gorostizak. Giro atsegin horretan, haurrak ere sartu dira elkarriketan. Assia Elfathik 9 urte ditu eta bere adineko baten xalotasunetik hitz egin du: "Gurasoekin bakarrik aspertu egiten naiz etxean, eta nahi dut beste ume batzuekin jolastu. Beste gurasoei eta umei esan nahi diet apuntatzeko".

Pena hori dute: familia gehiago ez gerturatzea egitasmora, eta deia egin dute. "Norbanakoaren hautua da, jakina, bakoitzaren balore, printzipio eta bizitzeko moduan oinarrিতa hartutako hautu pertsonala, baina nik esan dezaket gu geu oso pozik gaudela, jarraitzeko gogoz, eta halako zerbaiten beharra ikusten dugula gainera gure herrian. Guri dagokigu egitea, gainera, gure seme-alabek beste etorkizun bat izan dezaten", esan dute Auzokideek. Kritikoago mintzatu da Ayesta. Haren iritzirako, haurrak ezagutza eskainiko dieten espazioetara eramateko joera gailendu da eta balioetan hezteari ez zaio hainbesteko balioa ematen. "Horregatik, *Auzoko Familiak* moduko egitasmokak bigarren plano batean gelditzen dira". Nolanahi ere, batu bai ala ez dabilen horri esan diote ez dela damutuko eta mezu bat ere zabaldu dute egitasmora batzea lotura handiegia dela pentsa dezaketenei zuzenduta. Izena emateak ez du esan nahi irteera guztietara joan behar denik. Norberak erabakitzen du nora joan, norberak erabakitzen du zer konpromiso hartu. Librea da parte-hartzea, eta ez da ordaindu behar, jasotzen dena asko izanda ere.




ANTZINAKOAREN ARRASTOAN

✍ Ainhoa Andonegi
📷 Asier Orbea / J.R. Cabrera

Garai bateko usadioan, Gaba Beltza ospatu dute aurten Elgoibarren zein Mendaron. Euskal Herrian ohitura izan den bezala, urriaren 31n ospatu zuten Mendaron, Santu Guztien Egunaren bezperan, alegia. Trinitate Eliza ingurua apaindu zuten eta beldurrezko ipuinak entzuteko aukera izan zuten. Elgoibarren, aldiz, hilaren 28an irten ziren kalera. Elgoibarko Hezkuntza Mahaiak antolatuta, ibilaldi beltza egin zuten, Kalegoen plazatik Maalaraino. Kaleko argiak itzali eta kandelak piztu zituzten, eta perkusio donuek girotuta egin zuten ibilbidea. Txokolate jatearekin amaitu zuten ekitaldia. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus





JASOTZEKO EMAN

✍ Ainhoa Andonegi

Gipuzkoako odol emaileak omendu dituzte, eta Elgoibarren eta Mendaron ere izan dira odola emateagatik omendutakoak. Odol emaileen elkarteetatik odola ematearen garrantzia nabarmendu dute, eta ohartarazi dute odola jaso ahal izateko, ematea ere beharrezkoa dela. Ebakuntzak egiteko odol asko erabiltzen da, eta garrantzitsua da ospitaleetako odol

bankuak betetzea. Horregatik herritarrei dei egiten diete odola emateko, gazteei batez ere.

Mendaron gaur zortzi egingo dute hurrengo odol ateratzea, azaroaren 18an. Mendaro Ikastolan izango da, 16:30etik aurrera. Elgoibarren ere egun berean izango dira, Jubilatuen Biltokian. Horretarako txanda hartzea beharrezkoa da, 623 328 408 telefono zenbakira deituta edo Whatsappez.

ELGOIBARKO ODOL EMAILEAK.....

25 donazio:

- Maialen Astigarraga Garate
- Elena Etxeberria Aizpitarte
- Carlos Fernandez Martinez
- Unai Muñoz Olazabal
- Miren Julite Perez David
- Alberto Rodriguez Martinez
- Amagoia Zubizarreta Gurrutxaga

40 donazio:

- Yolanda Iglesias Prieto

50 donazio:

- Josu Leyaristi Uranga
- Jaime Martinez Gomez
- Alfonso Migales Ordoñez
- Francisco Javier Ribao Cid
- Josu Zialtzeta Aduriz



75 donazio:

- Joaquin Rosario Lujan

MENDAROKO ODOL EMAILEAK.....



25 donazio:

- Gaizka Lazarobaster
- Eneko Bolunburu
- Borja Rodriguez

40 donazio:

- Idoia Arakistain

50 donazio:

- Jabi Leira

75 donazio:

- Ramon Urain

*“Zure odolarekin
besteen bizia salbatu
dezakezula pentsatzeak
satisfazio handia
ematen du”*

JOAQUIN ROSARIO

Odol emalea



75 aldiz odola eman dutenen artean omendu dute aurten Joaquin Rosario (Badajoz, 1951), eta emaile bikain izendapena jaso du. Emaile izatearen nondik norakoak kontatu dizkigu.

Emaile bikaina izendapena jaso berri duzu. Zer esan nahi du horrek zuretzat?

Guztien artean zaharrena naizela (kar, kar)! 70 urte ditut, eta ez didate odol gehiago ematen utziko; hemen bukatu da nire emaile ibilbidea. Gizonezkoei urtean lau aldiz uzten digute odola ematen, eta emakumezkoei hirutan. Ni oso konstantea izan naiz, eta hutsik egin gabe eman dut beti, tokatzen zitzaidanean. 75 aldiz odola emateagatik omendu naute, baina horiek dira Elgoibarren eman ditudan aldiak. Aurrez, Bilbon bizi nintzenean ere eman nuen odola, beraz, nik uste 80-85 aldiz eman dudala. Beste bizitza bat sortzeko adina odol eman dut!. Umea nintzela etorri ginen Bilbora bizitzera, eta han bizi izan nintzen ezkondu arte. Bilbon egin nintzen odol emaile, 18 urterekin. Garai hartan ospitaleetarako bi bisita-txartel ematen zituzten senideren bat ingresatzen zutenean, eta emaile izateagatik guk beti geneukan bisita-txartela. Pribilejiatuak ginen! 70eko hamarkadaz ari naiz; orduan Gurutze Gorria zen odol emaileen arduraduna, eta niri tokatu ez zaidan arren, ezagutu dut odola emateagatik ordaintzen zuten garaia ere.

Zer dela-eta egin zinen odol emaile?

Odol emaile izatea alde guztietatik begiratuta positiboan iruditzen zait, eta zoragarria da. Ia esfortzurik gabe bizia ematen duzu, eta beste

alde berekoiago batetik begiratuta, nire adinera arte emaile izateko aukera izan badut, osasuntsu egon naizelako izan da. 70 urte ditut, eta ez dut botikarik hartzen.

Zer sentitzen duzu odola ematean?

Zure odolarekin beste batzuen bizia salbatu dezakezula pentsatzeak satisfazio handia ematen du. Gainera, primeran hartzen gaituzte odola ematera goazenean; heroiak bagina moduan. Odol emaileen elkarteko boluntarioek sekulako lana egiten dute, eta odola ateratzera etortzen diren guztiak oso profesionalak dira.

Nola ikusten duzu Elgoibarko Odol Emaileen elkartea gaur egun?

Oso ondo! Lehen sekulako ilarak sortzen ziren odola emateko, eta orain asko jota bost minutu egoten gara zain. Ez dakit nola konpondu duten hori, baina txanda ematen dute eta dena oso arin joaten da. Eta esan behar dut pandemiak gauza on bat ere ekarri duela, izan ere, espazio arazoengatik lokala aldatu ziguten, eta anbulatorio azpiko zulo hartatik Jubilatuen Egoitzara aldatu gintuzten.

Gazteei egiten diete odola emateko deia. Nola animatuko zenituzke gazteak emaile gitegera?

Erreleboa behar dugu, baina ez da gazte jende asko ikusten. 18-20 bueltako oso gutxi ematen dute odola. Neskek gehiago ematen dute mutilek baino. Nik uste nagusitzen joan ahala hartzen duela jendeak odola ematearen kontzientzia. Baina kontuan izan behar dugu oso beharrezkoa dela odola. Niretzako garrantzitsuena odola ematea da eta bizitzan baleko sentitzea, besteei laguntzeko.

Magosto Eguna ospatuko dute bihar



Bi urteko etena egin dute, pandemiak behartuta, baina aurten, udazkeneroko ohiturari eusteko apustua egin du Galiza Etxeak. Bihar ospatuko dute Magosto jaia, Maalako parkean, 11:00etatik aurrera. 200 kilo gartzaina enkargatu dituzte Ourensera (Galiziara) eta debalde banatuko dituzte herritarren artean. Gartzainez gain, Galiziako produktuak erosi eta dastatzeko aukera ere izango dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Bi sari eskuratu ditu

Jose Ramon Cabrera argazkilariak

Txingudi Merkataritza Guneak antolatzen duen *Bidasoako Begiradak* argazki lehiaketan hirugarren saria eskuratu du Jose Ramon Cabrera elgoibartarrak. Iaz eskuratu zuen bigarren saria hobetu ez izanaren arantza gelditu zaio, baina pozik da boto kopuru handia jaso duelako. 11.569 boto eskuratu ditu, ia iazko bikoitza.

Era berean, Neurtek enpresak antolatutako egutegirako argazki lehiaketan ere saritu dute. Energia izan da gaia, eta Cabreraren argazki bat aukeratu dute egutegiaren azalerako.



Andres Alberdi hizkuntzalaria euskaltzain oso izateko hautagai izendatu dute

Euskaltzaindiaren azaroko osoko bilkuran egingo den bozketatik aterako dira euskaltzain oso berrien izenak: Itxaro Borda eta Andres Alberdi dira Xarles Bidegain eta Andoni Sagarna ordezkatzeko hautagaiak.



Andres Alberdi Gorostiaga (Getaria, 1950) Filosofian lizentziaduna da. Irakaskuntzan aritu da 38 urtean; lehenengo, Elgoibarko Ikastolan; ondoren, Elgoibarko Institutuan, eta han, Euskara eta Literaturako katedraduna izan zen 1982tik, harik eta 2011n erretiroa hartu zuen arte. Bakarka zein elkarlanean, 1986tik, DBHko eta Batxilergoko Euskara eta Literaturako hogeitik gora ikasliburu eta gramatika ondu ditu. 1986-1990 bitartean, EGAKo aztertzaile-taldeko kide izan zen, eta, 1988-1990 urteetan, Azterketa Batzorde Ofizialeko zuzendaritza-kidea izan zen, Gipuzkoako arduradun akademiko gisa. 2007tik, Euskaltzaindiaren Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko lantaldeko partaide da. 2014tik, Euskaltzaindiaren Euskara Batuaren Eskuliburuako batzordeburu da, eta batzorde horrek 2018an prestatutako Euskara Batuaren Eskuliburuaren (2018) prestatzaile eta egilea. Era berean, 2022tik, Morfosintaxiaren Estandarizazioko batzorde ahaldunduko idazkaria da, eta euskaltzain urgazle izendatu zuten 2018an.

'Piztu! EmakumeON energia' antzezlana, domekan



Piztu emakumeON energia antzezlana izango da domekan Herriko Antzokian, 16:30ean. Antzezlanak XX. mendeko zientzialari handietako bat omentzen du, Mari Curie fisikaria. Nobel Saria jaso zuen lehenengo emakumea eta bigarren Nobela jaso zuen lehenengo pertsona izan zen.

Move Quartet taldeak kontzertua emango du bihar Mendaron, estreinako Jazz Egunean



Jazz Eguna antolatu dute biharko Mendaron, Udalak, Gararock taldeak eta Ameikutz musika eskolak elkarlanean. Bi parte izango ditu egunak: batetik, bermutaren orduan, 13:15etik aurrera, jazz saioa emango dute Alberto Arteta saxo-jotzaileak eta Javier Callen kontrabaxu jotzaileak, Uztargin. Gauean, 21:30etik aurrera, jaialdia izango da San Agustin kulturgunean. Move Quartet taldea dago kartelburuan, baina hasierako gonbidatu gisa arituko dira Josu Salegi Agirregabiria saxofoi jotzaile debarra buru duen konbo taldea lehenengo, eta Mendaroko Ameikutz musika eskolako Haizea Urkia eta Aitor Huergo ikasleak gero, nor bere aldetik. Ordu bete inguruko saioa izango da haiena, 22:30ean hastekoa delako Move Quarteten kontzertua. Sarrerak Morroskillon eta Debako Arena tabernan jarri dituzte salgai aurrez hiru euroan, baina bihar ere eskuratu ahal izango dira sarrerak.

Move Quartet

Borja Barrueta, Alberto Arteta, Javier Callen eta Iñigo Ruiz de Gordejuelak osatzen dute Move Quartet. Jazz tradizio klasiko eta folklorikoa oinarritzat hartuta, herri musika garaikidearen ukituko musika egiten dute itzal handiko lau musikariok. Iñigo Ruiz de Gordejuela da, beharbada, gurean taldeko ezagunena, besteak beste Mendaron jaioa delako, Ameikutz musika eskolako irakasle ere izan delako aldi batez, eta hamaika proiektu musikaletan murgilduta dabilelako aspaldian. Gasteizko

Guridi kontserbatorioan hasi zituen ikasketak eta Bostonen eta Erresuma Batuan ikasitakoa da bekadun. Estatu Batuetan, Guillermo Klein, Donny McCaslin, Miguel Zenon, Dave Holland, Ran Blake, Darcy James Argue, Carmen Lundy... musikari entzutetsuekin aritutakoa da, besteak beste. 2014an, Amalur proiektua sortu zuen, eta sari ugari pilotutakoa da bere gaztean. Alberto Artetak, berriz, Iruñeko Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioan hasi zituen musika ikasketak eta Amsterdango Conservatorium Van ikastetxean jarraitu zuen gero, Dick Oatts, Gerald Clayton, Ferdinand Povel, Dave Douglas, Gary Foster eta Don Menzaren mailako musikariekin. Hogei disko baino gehiago ditu grabatuta eta Europako jazzaren panoramako jaialdi eta lokal handienetan jotakoa da. Gaur egun, saxofoi irakaslea da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Borja Barrueta bateria-jotzailea, berriz, bilbotarra da, eta besteak beste, Jorge Drexler, Carmen Paris, Javier Colina, PericoSambet, Jorge Pardo, Ara Malikian, Josemi Carmona, Joe Lovano eta Lionel Louekeren mailako musikariekin jotakoa da. Zineko soinu-bandak ere egin izan ditu, maila handiko konpositoreekin, besteak beste Alberto Iglesias edo Fernando Velazquezekin. Taldeko kontrabaxu jotzailea, Javier Callen, biolina jotzen hasi zen umetan, baina instrumentua aldatu eta ibilbide oparoa osatu du gaur arte. Musikako Goi Mailako titulua du eta irakasle eta musikari profesional izatetik bizi da. Jazzean dago espezialdua, eta Euskal Herriko eta estatuko jazz jaialdi entzutetsuenetan jotakoa da.

Parrokiako Katekesia errelebo bila ari da errege magoen desfilea eta jaiotza lehiaketa antolatzen

Elgoibarko Parrokiako katekisten taldeak eta honen bueltako boluntarioek 34 urtean antolatu dute jaiotza lehiaketa (35. edizioa izango da aurtengoa), eta beste horrenbeste edo gehiago errege magoen desfilea, eta jakinarazi dute aurtengoak izango direla azkenak. Adinean aurrera doazela-eta, bi ekintzok antolatzeari lagako diote. Hori dela-eta, hutsune hori bete eta ekintzok antolatzen jarraitu ahal izateko deialdia zabaldu du Elgoibarko Udalak, errege desfilea eta jaiotza lehiaketa antolatzen prest dauden lagunak edo lagun-taldea topatzeko.

Interesatuak azaroaren 30a baino lehen eman beharko dute izena Kultura Sailean: kultura@elgoibar.eus / 943 742 158. Prest dauden lagunak aurten aurkeztuz gero, laga behar dutenengandik ikasteko aukera izango



duela azaldu dute Udaletik. Aurtengo edizioak elkarrekin antolatuko dituztela, alegia, erreleboa prestatzeko.

Udalak eskerrak eman dizkie bi ekimenen antolaketan parte hartu duten pertsoneri, "hainbeste urtetan zehar egindako lan desinteresatuagatik", eta elgoibartarrak talde eragile berrian parte hartzera animatu ditu.

Sijjin taldeak Euskal Herrian emango duen lehen kontzertua Sotoan emango du

Sinuösek antolatuta, Sijjin taldearen kontzertua izango da datorren barikuan, hilaren 18an, Kultur Etxeko sotoan. Alemaniako eta Euskal Herriko musikariek osatzen dute Sijjin, eta aurretik, Legen Beltza eta Necros Christos taldeetan aritutakoak dira besteak beste: Malte Gericke (Baxua eta ahotsa), Ivan Hernandez (Bateria) eta Ekaitz Garmendia (Gitarra). Old School Death/Trash Metal estiloa jorratzen dute. Mundu mailan hainbat jaialditan parte hartu eta gero, *Sumarian promises* diskoa aurkeztera datoz



Elgoibarrera. Euskal Herrian emanaldi bat emango duten estreinako aldia izango da Elgoibarkoa. 23:00etan hasiko da kontzertua, eta sarrerak 5 euroan jarriko dituzte salgai.



'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi' antzezlanaren aurkezpena, eta bihar, Mendaron

Kamikaz kolektiboak sortutako antzezlanaren aurkezpena da *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* antzezlanaren aurkezpena. Hiru emakume kanpai hotsekin batera puntual elkartzen dira mahai baten bueltan meriendatzeko. Tisana, pasta, azukre eta pasteltxoak beteko dituzte euren gorputzak, egunerokoak hitz egiten duten bitartean. Baina, ba ote dakite beraien bizitza beste norbaitek kontatua dela?. Nork mugitzen ditu emakume horien kortseen hariak?. Estilo horretako galderei erantzuna ematen ahaleginduko dira. Aurkezpena Elgoibarko Herriko Antzokian, 19:00etan, eta bihar, Mendaron San Agustin Kulturguneko oholtzara igoko dira, 17:00etan.

Ekintza sorta zabala antolatu dute Elgoibarren eta Mendaron indarkeria matxistaren kontrako nazioarteko egunaren harira



Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, eta egun horren harira hainbat ekintza antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron. Elgoibarren, Elina Chauvetek 2009an Mexikon egin zuen zapata gorrien artelan kolektiboaren moldaketa ere egin nahi dute, indarkeria matxistaren

biktima izan direnak gogoratzeko, baina horretarako zapatak behar dituzte. Berdintasun Saitetik eta Lila emakumeen etxetik egin dute zapatak batzeko deia, azaroaren 21erako. Aita Agirre kulturguneko sarreran egongo dira zapatak jasotzen, eta ondoren gorritz margotuko dituzte, kalean jartzeko.

11 BARIKUA

19:00 'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi' antzezlan, Herriko Antzokian.

12 ZAPATUA

12:00 Mendaroko emakume sahararren egoera ezagutzeko, te eta henna tailerra, Herriko Enparantzan. Eguraldi txarra egingo balu, aterpera aldatuko lukete lekuz.

13 DOMEKA

16:30-17:30 'Piztu! EmakumeON energia' haurrentzako antzerki obra. Eidabe Ekimen Kulturak konpainiak antzeztuta.

21 ASTELEHENA

9.00-20:00 Lumagorri elkartearen 'Ez normalak, ez otzanak' erakusketa, Aita Agirreko Kultur Kafean. Abenduaren 2ra arte.

23 EGUAZTENA

16:30 Gizonduz elkarteko Josetxu Rivierek 'Gizonezkoak eta berdintasunaren erronka XXI. mendean' hitzaldia emango du, Jubilatuen biltokian.

18:00 Hiruki Larroxa elkarteko Ibai Fresnedok 'Eta, mutilekin zer?' hitzaldia emango du udaletxeko pleno aretoan. Arno Guraso Elkarreak eta Udalak elkarlanean antolatutako hitzaldia.

19:00-20:00 Ines Bengoa ipuin kontalariaren 'Cuando sherezade habla, la vida baila' ipuin kontaketa saioa helduentzat, Gotzon Garate udal liburutegian.

21:00 'El Perdón' filmaren emanaldia Herriko Antzokian, Ongarri zine klubak antolatuta.

25 BARIKUA

18:00 Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguneko elkarretaratzea, Kalegoen plazan.

26 ZAPATUA

9:30-12:30 Emakumeentzako autodefentsa tailerra, Olaizaga kiroldegian.

28 DOMEKA

18:00-20:00 Hausnarketa saioa: Indarkeriaren eskailera. Loredi Salegik gidatuta, Lilan. Emakumeentzat eta ele bitan.

Haundi Bigarren B Mailara igo zela ospatzeko batu dira 25. urteurrenean



1996-97 denboraldian lortu zuen Haundik azkenekoz Bigarren B Mailara igotzea, inoiz egon den mailarik altuenera. Denboraldi hartako ligan 38 partida jokatu zituen Haundik (21 irabazi, 7 berdindu eta 10 galdu) eta bigarren postuan amaitu zuen Touring-en atzetik. Hala, Bigarren B Mailara igotzeko promozio fasea jokatzeko sailkatu zen. Aragoiko Fraga, Kantabriako Tropezon eta Nafarroako Oberena taldeak izan zituen aurkari ligaxkan, eta bost partida irabazi eta bestea berdinduta lortu zuten igotzea. Ligaxkako azkenurreko partidari Tropezonen aurka Mintxetan jokaturako partida 3-0 irabazita ziurtatu zuen igoera Haundik eta

sekulako giroa izan zen egun hartan Mintxetan. "Sarrera guztiak agortu ziren norgehiagoka erabakigarri hartan eta ilara luzeak sortu ziren, bai sarrerak eskuratzeko bai autoak aparkatzeko. Ordura arte ez zen halakorik gertatu", zioen garai hartako presidente Jose Ramon Zabalak, C.D. Elgoibarren mendeurrenaren harira argitaratu zuten liburuan jasota dauden adierazpenetan. Ospakizuna ere demasekoa izan zen eta kamioi baten gainean iritsi ziren jokalariai udaletxera. Plaza bete zuten ehunka zale zituzten zain. Horiek guztiak gogoratu zituzten protagonistek eurek, igoera lortu zutenetik 25 urte pasatu direla ospatzeko elkarrekin egin zuten bazkarian.

Mendarotik Debara, naturaz lagun artean gozatzuz



Mendiaz eta lagunez gozatzeko irteeran parte hartu zuten hainbat lagunek joan den igandean. Eguraldiagatik bi aldiz atzeratu behar izan zuten Arno Guraso Elkartekoek Mendarotik Debara oinez egiteko irteera, baina hirugarrenengo ahaleginean

gauzatu ahal izan zuten irteera. Guztira 38 lagun abiatu ziren plazatik oinez Debarantz. Elkorrieta gainean geldialdi bat egin zuten hamaiketako jateko eta astiro-astiro, nor bere pausotan, iritsi ziren Debara, naturaz lagun artean gozatzuz.

Maite Maiorak bigarren postua lortu du Espainiako taldearekin Thaiandiako Munduko txapelketan



Thailandiako iparralde menditsuan, Bangkok hiriburutik 700 kilometrotara dagoen Chang Mai hirian jokatu dute Munduko trail running txapelketa (World Mountain & Trail Running Championship). Estrainekoz txapelketa berean batu dituzte mendiko lasterketa motzak eta distantzia luzekoak. Pandemiagatik bi urtean atzeratu behar izan duten txapelketan 56 herrialdeetako 900 mendi lasterkaririk hartu zuten parte distantzia desberdinetako probetan, eta temperatura eta hezetasun handiarekin lehiatu behar izan ziren. Maite Maiora mendarorarik 80 kilometroko eta 4.910 metroko desnibeiko ultra trail proban parte hartu zuen, eta zortzigarren

postuan sailkatu zen. 8 ordu, 56 minutu eta 42 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Blandine L'Hirondel frantziarra gailendu zen proban (8:22:14), Ida Nilsson suediarrek egin zuen bigarren (8:34:59) eta Gemma Arenas espainiarrak hirugarren (8:46:27) Taldekako sailkapenean, baina, bigarren postua lortu zuten Espainiako ultra trail lasterketen selekzioa ordezkatu zuten bost atletek: Gemma Arenas (3. postua), Maite Maiora (8. postua), Marta Molist (15. postua), Monica Vives (26. postua) eta Azara Garcia de los Salmones (33. postua). Taldeka Frantziako selekzioak lortu zuen urrea, eta Italiakoak brontzea.

Ioseba Tamayok AEBetako Ironman 70.3 World Championship-ean hartu du parte

JAZ Eibar Triatloi taldeko kidea den Ioseba Tamayo elgoibartarra Ameriketako Estatu Batuetan lehiatu zen urriaren 29an, ST. Georgen jokatu zuten Ironman 70.3 World Championship txapelketan, hain justu ere. 2021ean Cascaisen lortutako 4. postuaren ondorioz lortu zuen Tamayok AEB-etako proban parte hartu ahal izatea. Triatloia goizean goiz hasi zen 4 gradurekin, uretan ordea 17 gradu zeuden. Bizikleta hartu orduko 6 gradu zeuden soilik, baina esperientziaz asko gozatu zuela dio Tamayok. Aurten maila handia izan bada ere, Eibar TT-ko taldekoa 4:33:39 denborarekin sartu zen helmugan, bere kategoriako 86. postua eskuratzeko.



Hodei Ezpeletak hirugarren egin du 'Izar Berriak' aizkora txapelketako finalean

25 urtez azpiko gizonezko aizkolari onenak lehiatu ziren *Izar Berriak* - Urrezko aizkolari txapelketa izeneko lehiaketan, joan den azaroaren 1ean, Urnietako udal pilotalekuan. Lau aizkolari gazte aritu ziren lehian, maila handikoak denak. Izan ere, Euskal Federazioak antolatutako Euskal Herriko txapelduna den Hodei Ezpeleta mendaroarrarekin batera, Sherpa. ai txapelketako egungo txapelduna den Iker Vicente aizkolari nafarrak ere hartu zuen parte. Ezpeletak Leitzan jokatu zuten kanporaketan lortu zuen finalerako sailkatzea. Finalean Jokin Urretabizkaia *Basozabal* aizkolari donostiarrak hartu zuen aurrea lehen enborretan, eta bederatzi segundoko abantailarekin ailegatu zen lau kanaerdiko lau enbor ebaki behar zituzten azken probara. Iker Vicente zuen orpoz orpo eta azken enborrerako abantaila jan eta aldea irabazita zuen nafarrak. Vicentek 14 minutu eta



18 segundotan amaitu zituen lanak. Basozabalek egin zuen bigarren, irabazlearengandik 24 segundora eta Hodei Ezpeletak amaitu zituen lanak hirugarren postuan, Iker Vicentek baino 32 segundo gehiago erabili. Julen Larrea sailkatu zen laugarren, irabazlearengandik minutu eta 19 segundora. Ezpeleta Euskal Herriko Txapelketan izango du hurrengo erronka nagusia, iaz eskuratu zuen titulua izango baitu jokoan. Azaroaren 27an jokatuko dute Bilbon.

Larrialdiak kudeatzeko ikastaroa emango du Urbizik

Urbizi urpekaritza klubak larrialdiak kudeatzen ikasteko ikastaroa antolatu du, Kirol Patronatuarekin elkarlanean, azaroaren 18rako. 19:30ean izango da Olaizaga kiroldegian. Larrialdi egoera batean bizitza bat salba dezaketen teknikak irakatsiko dituzte, besteak beste, Heimlich maniobra, bihotz-biriketako suspertzea edo oinarritzko bizi-euskarria nola erabili. Parte hartzeko ez dela alde zureko ezagutzarik behar zehaztu dute. Ikastaroa doan izango da, baina gehienez hamabost lagunentzako lekua izango da. Izena emateko bidali mezua urbiziurazpikoelkartea@gmail.com helbidera edo jo Olaizaga kiroldegiko harrerara.

Lartainek lortu du bere buruari jarritako erronka gainditzea, 210 kiloko harria jasota

"Lagun gutxi altxatu dute 200 kiloko harria 17 urterekin. Uste dut lau harri jasotzailek bakarrik lortu dutela. Horietako bat gehiago izatea gustatuko litzaidake", esan zion BARRENI Imanol Royo *Lartain* harri-jasotzaileak, Mintxeta Memoriala harri-jasotze txapelketan estreinako lehian berri zela eginiko adierazpenetan. Harri jasotzaile zarautzarrak lotura berezia du Elgoibarrekin, amaren partetik dituen senide guztiak Elgoibarkoak direlako (Birraitona harri-jasotzailea izan zuen). Abenduaren 1ean egingo ditu 18 urte Imanol Royo *Lartain* harri-jasotzaileak, eta egun hori baino lehenago egin nahi zuen 200 kilotik gorako harria jasotzeko ahalegina. Saiakera egiteko azaroaren 1ean Urnietan egin zuten herri kirol jaialdia aukeratu zuen, eta 200 kilotik gorako harria aukeratu zuen, bere pisua halako biko zama duen 210 kiloko harri errektangularra, hain justu ere. Bi saiakera egin zituen, eta lehenengoan lortu zuen marka. Gerrira jaso, bularrera goratu, han bi bote egin eta bizkar gainean berdintzea lortu zuen.



Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiaren finalean ariko da Uxue Ansorregi

Kirola eta kultura uztartuko ditu Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiaren finalak, antolatzaileen asmoa baita euskal kulturari eta herrikirolei ikusgarritasuna ematea eta jende gehiagorengana hurbiltzea. Bilbao Arenan jokatuko dute finala, domekan, azaroaren 13an, 12:00etatik aurrera; eta, iaz moduan Uxue Ansorregi mendaroarra izango da parte hartuko duten kirolarietako bat. Ansorregik, Nerea Arruti urnietarra eta Irati Astondoa zeanuriarra izango ditu aurkari finalean. Aurkari gogorrak izango dira, Euskal Herriko aizkora txapelketa irabazi berri baitu Arrutik, joan den domekan, Mungian. Minutu eta erditik gorako aldea atera zion urnietarrak Nerea Sorondori, azken hiru urteetako txapeldunari. Irati Astondoak osatu zuen podiuma eta seigarren postua eskuratu zuen Ansorregik. Hortaz, sasoi betean ailegatuko dira hiru aizkolariak Bilboko demara. Gizonezkoen finalean sei aizkolari arituko dira finalean: Eneko Otaño, Mikel Larrañaga, Ugaitz Mugarza, Julen Alberdi, Ibai Soroa eta Txomin Arzaloa.

Superbowlaren estiloan

Antolatzaileek final ikusgarria antolatu dutela esan dute, Ameriketako Estatu Batuetan antolatzen duten Superbowl ezagunaren



modura. "Hura den moduko kirol eta kultur erreferente izan nahi genuke", azaldu dute. Hori horrela, goi mailako musikariek girotuko dute aizkolarien lana; hala nola Sünek (Josune de Huntza), Zetakek eta Zea Maysek. Musikariok aizkora lehiaketaren tarteetan parte hartuko dute. Duela hiru urte hasitako bidetik, aizkora jokoa garai berrietara egokitzea, modernizatzea eta herri kirol hau profesionalizatzea da antolatzaileen asmoa eta helburua. Liga profesionalak dituzten beste kirol batzuen maila berera igo nahi dute aizkora, hala nola, futbolaren, pilotaren eta arraunaren mailara. Asmo horretan, Euskal Herriko Aizkora Elkarteak Sherpa.ai adimen artifizialeko enpresaren laguntza du eta bidelagun Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, BBK Fundazioa, Stihl eta Grupo GTM.



LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan eta gauzez. Etxeko langile moduan ere bai.
652 020 464

Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. 600 712 679

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.
631 357 711

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. Orduka zein etxeko langile moduan lan egiteko prest. 624 343 451

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Titulua daukat eta euskaraz dakit. Orduka.
626 490 986

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Bost urteko esperientzia daukat.
642 126 876

Ganaduzaintzan edo baserrietan lan egiteko prest. 612 281 385

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
612 281 385

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
642 578 943

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
642 577 823

Adinekoak zein umeak zainduko nituzte eta etxeko lanak egiteko ere prest nago. Etxeko langile moduan egoteko prest.
641 739 472

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, goizez. Beharrezkoak diren tituluak ditut.
631 887 341

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, arratsaldez edo asteburuetan. Beharrezkoak diren tituluak ditut.
688 739 536

Geriatrico laguntzailea, adinekoei edo menpekoei laguntzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientzia handia ditut.
660 511 781

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. 631 357 711

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, eta baita etxeko lanak egiteko ere. Etxeko langile moduan egoteko prest nago. Pertsona arduratsua naiz.
688 896 630

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulua daukat. Esperientziaduna. 685 724 861

Garbiketa lanak egingo nituzke, orduka. Esperientziaduna naiz
632 721 342

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan egoteko prest. Esperientzia daukat.
685 382 518

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
642 578 943

Eskaintzak

Zarauzko ile-apaindegi baterako ile-apaintzailea behar da.
678 659 118



Menpekotasun kognitiboa duen emakume bat zaintzeko pertsona behar da. Derrigorrezkoa titulua eta esperientzia izatea. Erreferentziak izatea baloratuko da. Deitu 17:00etatik aurrera telefono honetara:
637 258 819

ETXEBIZITZAK


Etxebizitza alokatzen dut Arregitorre 12an. 3 logela, egongela, sukaldea guztiz hornitua. Altzariekin. Igogailua, ganbara eta garajerako aukera.
669 671 680 (Josu)

GARAJEAK

Garaje marraduna alokatzen da Lekuederren.
699 143 767

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatzaile Elkartea Luzarrak Kontrolatzen</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Errentan bizi naiz, eta bizi naizen eraikinaren teiltatua hondatuta dago. Horregatik, itokinak dauzkagu etxean. Behin baino gehiagotan ohartarazi diot jabeari, baina hark komunitateko presidentearengana bidali nau beti, berak ezin duela ezer egin arrazoituta. Duela egun batzuk, horrenbeste alditan esan niola-eta, presidentea etxera etorri zitzaidan zer geneukan ikustera, baina ez zuen itokinak konpontzeko konpromisorik agertu. Jakin nahi nuke zer egin dezekadan.</p> <p>Alokairuan egonda, zuk zeuk ez daukazu inolako lotura juridikorik komunitatearekin, etxejabearekin baizik. Ugazabarekin daukazu hitzarmena lotuta zuk. Beraz, haren kontra baino ezin duzu egin, eraikinaren jabetza horizontalari lotutako kontuak etxebizitzaren, lokalaren, garajearen, trastelekuaren... jabeai eragiten dielako.</p> <p>Ondorioa: Errentan dagoenak ez dauka titulu juridikorik jabeakideen komunitateari ez eskatzeko. Eraikineko elementuren baten jabeak baino ezin du egin hori. Hala ere, etxejabearen betebeharrak nagusia da alokairuan emanda daukan etxea bizitzeko baldintza duinetan izatea, eta zuk diozun kasu honetan ez du bere betebeharrak betetzen, hezetasan-arazoek bizitzeko baldintza egokiei zuzenezuzenaren eragiten dietelako.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Maialen!** Nuria, Leire, Ane eta Sararen partez.



Zorionak, **Nuria!** Maialen, Leire, Ane eta Sararen partez.



7 urte!
Zorionak, gure poxpoline! Beti izango zara gure argia. Asko maite zaitugu, **Teresa Ines!**



Biharko egunaz gozatu dezazuela, **bikote!** Besarkada bana, lagunen partez.

Zorionak, **Aitor,** urriaren 31n zure urtebetetze eguna izan zelako. Familiako guztion partez. Maite zaitugu.



OSTEOPATIA

Victoria Iraegui

Osteopata kolegiatua: 0299 zk.

TEKNIKAK: Pediatrikoak / Egiturazkoak / Garezurrekoak / Erraietakoak / Somato-Emozionalak / Posturologia/ Drainatze linfatikokoak

Zer tratatzen du osteopatiak teknika hauek erabilita?

- Ziatika, lunbalgia, drosagiala, tortikolia, zartada zerbikala...
- Estresa, prozesu depresiboak.
- Baraileko oklusioa, brusismoa, akufenoak, bertigoak, migrainak, hortzetako oklusio txarra eta estabismoa.
- Kirol-lesioak, bihurrituak, luxazioak, muskulu-kontrakturak.
- Erditze aurrekoa, haurdunaldia eta erditze ondokoa.
- Mastektomiak, orbainak eta kirurgia osteko edemak
- Digestio-, urologia- eta neurologia-arazoak.

HAURTXOETAN:

Insomnia, bularreko haurraren kolikoa, gehiegizko negarrak, arreta-arazoak, estrabismoa...



659 332 423 - 943 740 770

victoriairaegui@gmail.com



Pedro Migel Urruzuno 21 behea (Urnoibitza alboan)

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WAN24265ES ARROPA GARBIGAILUA



499 €



- 8 kg-ko karga
- 1200 R.P.M.
- 24 ordura arteko bukaera diferentua
- Etenaldia eta karga funtzioa
- Programa azkarra 30 min

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendakoa prezioak. Produktuak agortu aurretik.

BARREN astekaria

ADI! Telefono zenbaki berria dugu:

 **688 655 658**

Whatsapp mezuak bidaltzeko zenbaki berria erabili behar duzue aurrerantzean!



11 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi'. Herriko Antzokian.

12 ZAPATUA

11:00 Magosto jaia. Galiza Etxeak antolatuta, Maalako parkean.

12:00 Mendaron bizi diren emakume sahararren egoera ezagutzeko te eta henna tailerra. Mendaroko Herriko Enparantzan.

13:15 Vermut-jazz ekitaldia. Mendaroko Uztargi tabernan.

17:00 Antzerkia: 'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi'. Mendaroko San Agustin Kulturgunean.

21:30 Mendaroko I. Jazz Eguna. San Agustin kulturgunean. Sarrera, 3 euro. Morroskilon eta Debako Arena tabernan salgai.

13 DOMEKA

16:30 Familia antzerkia: 'Piztu! EmakumeOn energia'. Herriko Antzokian.

16 EGUAZTENA

18:30 Hitzaldia: 'Trantsizio Energetikoa eta energia berriztagarriak'. Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari Iñigo Ansola Kareagak emango du. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian.


18 BARIKUA

18:30 Hitzaldia: 'Zer eragin du alkoholaren kontsumoak familietan?'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



Ikusi gure katalogoa!

- ❖ Neurria egindako oheburuak!
- ❖ Oihal mota eta sky aukera zabalak!
- ❖ Neurri guztiak! Kolore guztiak!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

BUELTAN DA ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA!

1.000 erregalu baino gehiago...

Aurten bai! Aurreko urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu **Kalegoen plazan**. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!

				
Bataurrekoentzako estutxeak	"El jueves a las cinco" liburua eta poltsa	"Kalexar Rekos" musika cd-ak	Zapia eta eskularruak	Girlandak
				
Material didaktikoak	Giltzakoak	Karpetak	Poltsak	Erlorjuak


643 499 169
943 741 626
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Zinea



'La consagración de la primavera'

12 zapatua: 19:00/22:15
 13 domeka: 19:00
 14 astelehena: 21:00

'Breadwinner' (Ongarri)

16 eguaztena: 21:00
 (Jatorrizko bertsoan, euskarazko azpitituluekin)

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

IRAILA

11 BARIKUA

12 ZAPATUA

13 DOMEKA

14 ASTELEHENA

15 MARTITZENA

16 EGUAZTENA

17 EGUENA

18 BARIKUA

Egunez

Barrenetxea

■ Ibañez

■ Yudego

■ Ibañez

Garitaonandia

Arriola

■ Fernandez

Yudego

■ Oruesagasti

Iluntzean

Barrenetxea

Garitaonandia

Arriola

Yudego

Yudego

Garitaonandia

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4
 Garagartza (Mendaro)
 943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)
 943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)
 943 751 384

Urte guztian, gauez: 22:00-09:00

Esther Mendinueta Berastegui - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106

"Euskarak lan esparruan bere tokia behar du. Horregatik Euskaraldian bost arigune sortuko ditugu".
 Nerea Ortiz

HITZETZ EKITEKO GARAIA

EMAN IZENA!
 euskaraldia.eus

Javier Andonegi Milikua

2022ko azaroaren 1ean hil zen, 75 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Izan zarena,
 erakutsi duzun kemena,
 gure artean geldituko da
 zuek jasotako dena.**

Etxekoak



Andres Badiola Arakistain

1936-02-18 / 2022-10-30

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Gauero ezkutatzen da eguzkia itsaso aldetik,
baina zu ez zara aldenduko gure bihotzetatik.**

Etxekoak



Elicio Lobete de la Horra

2022ko urriaren 22an hil zen, 88 urte zituela.

Betirako gogoan izango zaitugu.

ZUBI - ONDO



Sabin Zabaleta Etxeberria

2022ko urriaren 27an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure alaitasuna eta esker ona
bidelagun izan ditzagula beti.**

Familia



Zure diruak balioa dauka

etxegain
IK11

Bizigunea parkean

ETXEBIZITZA GUZTIEK BISTA GARBIAK
DITUZTE ETA TERRAZAK ARRATSALDEKO
EGUZKIARI BEGIRA DAUDE.

SUKALDEAK, HORNITUA DAUDE

ERABAT HORNITUTAKO ARMAIRUAK

IK11k GEHIAGO EMATEN
DIZU, LOGELA GEHIAGO,
ALTUERA HANDIAGO,
BISTA GEHIAGO,
TERRAZA GEHIAGO...
GUTXIAGOREKIN



5. SOLAIRUA
1 LOGELA
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
135.000 eurotik aurrera



5. SOLAIRUA
2 LOGELA - 2 BAINU
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
160.000 eurotik aurrera



3 LOGELA - 2 BAINU
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
180.000 eurotik aurrera



Irudi birtual
ez lotetsiak

GE
grupo eibar
inmobiliario

650 442 159

E.: comercial@grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA:

San Francisco, 32 • 20870 ELGOIBAR

WWW.ETXEGAIN.COM

Eskatu **ticketa**
hazten jarraitzeko. **BAI.**



Eskatu TicketBAI, etorkizuneko erronkei aurrea
hartuko dien Gipuzkoa bat eraikitzeko.

gipuzkoa.eu/ticketbai



TicketBAI
GIPUZKOAK | INBIBURUAK

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ezkerreko Foru
Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN
DA FUTURO

Trantsizio Energetikoa Energia Berriztagarriak

IÑIGO ANSOLA KAREAGA

Energiaren Euskal Erakundeko (EVE)
Zuzendari Nagusia

ELGOIBAR

Aita Agirre kulturguneko areto nagusian
Azaroaren 16an, asteazkena, 18:30ean